

Ur gastua eta familien aurrekontua

Uraren zikloari lotutako zerbitzuek nola eragiten diote etxeko ekonomiari? Urtero egiten diren azterlanek adierazten dute gastu horiek oso portzentaje txikia direla familien aurrekontuan

Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) Familia Aurrekontuen Inkesta bat egiten du urtero, Espainiako etxeetako kontsumoaren gastua ezagutzeko eta kontsumoa zein ataletan banatzen den jakiteko. Euskadin, EUSTATEk antzeko azterlan bat egiten du. Bi azterlanek **hornidura eta saneamendu zerbitzuei lotutako gastuak sartzen dituzte analisian, eta erakusten dute familia aurrekontuan oso pisu espezifiko txikia dutela, are txikiagoa etxeko beste zerbitzu edo gastu batzuekin alderatuz gero. Egoera hori, gainera, nabarmenagoa da Euskadin eta Vitoria-Gasteizen.**

Gasteizko etxeek, batez beste, **135 €** ordaindu zuten 2020an AMVISAK emandako zerbitzuak

ordaintzera, **beren urteko aurrekontuaren %0,47***. Pandemiaren aurreko balioak are txikiagoak ziren, %0,40koak. INEren arabera, portzentaje hori edozein autonomiak duenaren oso azpitik dago, zifrak Galiziako %0,72aren eta Murtziako %1,47aren artean egonik.

Horrez gain, euskal etxeek egiten duten gastuaren datuek, zerbitzuen arabera bereizita, adierazten dute zaborren bilketak bakarrik eskatzen diela ahalegin ekonomikoki txikiagoa familiei, urari lotutako zerbitzuek baino. Elektrizitateak edo gasak familia aurrekontuaren %189 eta %60 gehiago kontsumitzen dute hornidurak eta saneamenduak baino, hurrenez hurren, eta aipamen berezia merezi dute posta,

telefonía eta fax zerbitzuek, horietara ia 900 € bideratzen ditugulako urtean.

Aurkeztutako datuetan ikus daitekeen bezala, Vitoria-Gasteizko hornidura eta saneamendu zerbitzuen kostua **familien errentaren %0,5 baino txikiagoa** da gaur egun, EUSTATEk emandako datu objektiboek errepikatuta.

Ondorioz, gure hiriko horniduraren eta saneamenduaren tarifak oraindik oso urrun daude Nazio Batuen Erakundeak giza eskubide gisa uretarako sarbide unibertsalaren berme gisa **gomendatutako gehieneko %3tik**.


Etxe bakoitzeko batez besteko gastuaren banaketa Araban 2020an



Ur hornidura eta saneamenduko urteko gastua 2020an



Zerbitzuen arteko alderaketa Euskadin 2020an



Etxeko gastuaren portzentajea:



*Kalkulua egiteko AMVISAREN urteko fakturazio datuak eta EUSTATEn arabera Arabako familien batez besteko gastua hartu dira kontuan.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.

Hauxe da helbidea:

info@amvisa-futura.org